

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 25ean, 12:00etan, Hezkuntza Departamentuko "San Domingo" gelan, epaimahaietako kideak izendatzeko zozketa egin da. Epaimahai horiek honako ebazpen hauetarako dira: 302/2020 Ebazpena, abenduaren 18koa, Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariak emana, zeinaren bidez onesten baita Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren kudeaketa-esparruko lanpostuak betetzeko Lanbide Heziketako irakasle teknikoan kidegoan sartzeko hautapen prozedura; 104/2021 Ebazpena, apirilaren 15ekoa, Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariak emana, zeinaren bidez onesten baitira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren kudeaketa-esparruko lanpostuak betetzeko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartu, eta bertara igotzeko eta espezialitate berriak eskuratzeko hautapen prozedurak; eta 324/2021 Ebazpena, abenduaren 2koa, Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariak emana, zeinaren bidez onesten baitira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren kudeaketa-esparruko lanpostuak betetzeko Maisu-maistren Kidegoan sartzeko hautapen prozedura eta Maisu-maistren Kidegoko karrerako funtzionarioek aipatutako kidegoan espezialitate berriak eskuratzekoa.

Funtzionario honengandik aurrera izendatuko dira epaimahai bakoitzerako behar diren gainerako kideak: **Dorai Sala, Beatriz**

Eta horrela ematen da aditzera, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 25ean

IRAKASLEAK HAUTATZEKO ETA LANPOSTUAK BETETZEKO ZERBITZUKO  
ZUZENDARIA

Amalia Cuartero Arteta